

ASPALDIKO PARTEZ

Institutura joan aurretik egunero bezala txakurrarekin paseatzera abiatu zen Irati, nahiz eta goiz horretan ere hotz aipagarria zegoen, begiak eta batik bat sudurra etengabe jarioka uzten zizkion hotza. Amari hitzeman zion, baserriko izebak eskainitako txakurra etxera ekartzeko baldintza huraxe baitzen, egunean bitan gutxienez kanpora lagunduko zuela, eta behin ere ez du hitz hori jan. Tira, bai, udaberrian sukarrarekin ohetik altxa ezinda egon zen bi egunez, eta tira, bai, hamabostaldi bat igaro zuen udalekuetan txakurrik gabe, eta tira, baita ere, igande batean ez zeukan deus ere egiteko adorerik, triste antzean-edo (*Zer duzu Irati? Ezer ez ama, utzi bakean mesedez*), eta hartan ez zen etxetik irtetera makurtu; horietan guztietan ez zuen txakurra kalera atera. Bestela, egoera ekidiezin jakin horien oztoporik gabe esan nahi da, ez zen bere ohitura hutsik egitea, termometroak hirugarren egunez jarraian zero azpitik markatuagatik ere, hiria oraindik ilunpean egonagatik ere.

Txakurra gaztea zen, tamaina ertainekoa, baina hala ere Iratik lotuta zeraman. Udal-arautegiak hala eskatzeaz gain, berea ez baitzen ez artzain-txakurrak bezain esanekoa; solte utziz gero ez zen Iratik deitu orduko etortzen, bosgarren edo seigarren aldian baizik, eta bere ahaideren batekin topo eginez gero ez zen bueltatzen eta kito, eta bere bila joan behar, eta Iratik goizez, ordu horretan eta hotz horrekin ez zeukan astirik ez eta pazientzarik sobera horrela ibiltzeko. Uhalari gogor helduta beraz, eguneroko eginbeharra bete zuen Iratik: txakurra gidatzea txakurrentzako aisialdi-guneraino, jarduera gehigarririk gabe.

Txakurrak zer edo zer usnatu edota hurbilagotik aztertzeko asmoa azaltzen zuenetan Iratik ez zeukan tiratze bortitzak egiteko eskrupulurik batere. Nolabaiteko erraztasunez kontrola zezakeen, eta betekizun fisiologikoak kitatu zituenean berehala eraman zuen bide beretik bueltan etxera, abiada errepidea gurutzatzeko baino ez motelduz. Eta hortik aurrerakoa ere, ohikoa: ezkaratz aurrean berokiko sakelan arakatu, giltza eskuratu, atea zabaldu, igogailua deitzeko botoia sakatu, txakurra igogailuan barneratzera behartu, igo, goiko giltza eskuratzen ere instant bat galdu, etxean sartu, txakurra askatu, txanoa eta eskularruak erantzi (berokia ez), egongelaren txoko batean zegoen txakurraren potoa txakur-janarekin bete, txakurra han utzi eta sukaldera, bakarrik gosaltzera.

Bakarrik ez baina, sukaldeko argia piztuta baitzegoen, eta ama mahaian jarrita. Haren aurpegiari erreparatuz, usu zuena baino pixka bat goizago jaikitzeak kalte egin ziola ondorioztatzerik bazegoen. Orraztu gabe eta bere burua besarkatzen zuela jesarrita,

eztarria leundu zuen:

-Kafea egiten ari naiz. Kafesnerik nahi?

-Ez ama, kafea ez dut aspalditik edaten -erantzun zion Iratik arasatik edalontzia eskuratzearekin bat. Hozkailutik tetrabrik bat esne hartu eta edalontziari edukia eman zion. Horrekin eta lau galletekin nahikoa zuelarik, amaren aurrean eseri zen. Orduantxe, ustekabeen txakurrak ere bat egin zuen haiekin. Zuzenean mugitu zen Iratirengana, eta haren aulkian bermatu zituen aurreko hankak. Sumatu zuena Iratiren hankarteari zerionez hantxe usnatzeari ekin zion, hilean behin gertatzen zen legez. Irati jaiki eta oinarekin bultzatuz berehala egotzi zuen txakurra sukaldetik, marmarka atea ixtea ahaztu zitzaiolako. Oraingoan gogoratu zen, bake santuan gosalduta ahal izateko.

-Esne hotza gosalduta behar al duzu? -iratzarri zen ama-. Berotu ezazu, neska! Dagoen hotzarekin!

-Niri horrela gustatzen zait, ama.

Gosaria hizpide ama tematuko zela aurreikusiz, behar den moduan gosaltzea ezinbestekoa baita eta abar, Irati erantzuteko prestatu zen. Ez zuen aukerarik izan ordea, amak ez baitzuen deus ere gaineratu. Une batez, galletak esnean hezetzekoan sorturiko plisti-plasta ere hautemangarria suertatu zitzaion Iratiri. Amak zerbait zerabilen buruan, zer edo zer gogotik ahotsera ekarri nahian. Beste erremediorik ez zuenean hasi zen hizketan, Irati laugarren eta azken galleta irensteaz zegoenean hain justu.

-Aizu Irati. Gauza bat esan behar dizut. Badakit lehenago aipatu izan banu askoz hobe litzatekeela zuretzat, prestatzeko denbora izateko, emozionalki esan nahi dut, baina nik ere atzo bertan hitz egin nuen berarekin telefonoz, eta esaten ahal nizun, zalantzarik gabe, baina lotara joatekoa zinen eta nik asimilatu behar nuen baita ere, eta tira, azkenean gaur goizean esatea erabaki nuen -amaren hitzen doinuari artifizialtasuna zerion, lehenago ispilu aitzinean entseatzen egon balitz bezala. Dena den, ispiluari eta Iratiri azaldutakoak ez zetozen bat, zehaztasunez ez behintzat.

Irati edalontzia arraskan uzteko zutitu zen.

-Ados ama. Baina esadazu. Berandu nabil.

-Zure aita gaur etorriko da bisitan. Laneko bilera dauka hemen ondoan, eta gero hona etorriko da bazkaltzera. Badakit oso aspaldian ez duzuela elkar ikusi baina ez da berak nahi izan ez duelako, badakizu zergatik, eta gauza bat da gure artekoa eta beste bat zuen artekoa, eta ezin nion ez etortzeko esan, eta orduan esan nion etor zitekeela. Ez dizut derrigortu nahi, baina kasu egiozu pittin bat. Denbora asko pasatu da, baina berarekin hitz egin pixka bat, ilusioa izango du zu ikusteko.

-Ondo da ama -harengana hurbildu eta masailean muin egin zion-. Banoa.

Amak beste esaldi landuren bat mihi puntan zeukan arren, *zure aita da oraindik, beti izango da zure aita* esate baterako, ez zuen ahoskatzerik lortu, eta konturatzerako Irati kanpoan zen, agudo orrazkerari azken ikutua eman eta bizkar-zorroa sorbaldaratu ostean. Amari harrituta egoteak ez zion etorria erraztu gainera. Iratik albistea halako normaltasunez jasotzea, itxura batean bederen, ez zuen inondik ere uste; edozer huskeria esan berri ziola zirudien. *Irati, gaur berandu iritsiko naiz etxera.*

Iratiri, kalean oinez, ez zitzaion zirrarak antzematen, eta bere baitan ere ez zegoen nabarmenki hunkitua. Institutura bidean, haizea oldartu zitzaion eta ezer gutxi pentsatu zuen, txirrina jotzen zegoela, maiz gertatzen zitzaion bezala, hara iritsi zen arte.

Gelan sartu eta lehenengo eskola hasita zeudela jabetu zen amaren hitzen esanahiaz. Orduan hainbeste arduratu zen ezen bere lagun-minenei ere ez baitzien gaiari buruzko ezer aipatu. *Hau nazka, orain tipo hau ikusi behar* egin zuen gogoeta, besteak beste, bere aulkian eserita. Nagitasunagatik, apika.

Eguneko azken eskola bukatua zela iragartzen zien txirrinak jo zuenean Aloña, Maite eta Irati dagoeneko institutu-barrutiaren atarian zeuden, 3.B-ko gainontzeko gelakideak bezalaxe. Historiako irakasgaia, azken orduan izaki, eta erdiak arte jasatea ikasleei gehiegi eskatzea zen antza, eta historiako irakasleak ez zien eskatzen. Aloña eta Maite loritz delako bati buruzko iruzkina osatzen zebiltzan eta Iratik, parte hartuagatik, ohi zuena baino askoz gutxiago ari zen jardunean, gehienbat kontuan hartuta iruzkina ez zela inolaz ere konstruktiboa.

Norbaitek Iratiren izena oihukatu zuen. Neskak berehalakoan mututu ziren, oihuaren egilea nor eta non zen jakiteke, inguruak soarekin miatuz. Iratiren aitaren bigarren deiadarra ozenagoa izan zenez, hirurek ikusi ahal izan zuten kale bestaldean besoa altxatzen zuen gizonaren kokalekua.

-Nor da hori? -galdetu zuen Aloñak edo Maitek, bietako batek.

-Nire aita, uste dut -erantzun zuen Iratik.

Bai, bera zen, Iratik beranduago ikustea espero zuen arren, etxean. Hallean zeuden argazkietako batean Iratirekin eta amarekin agertzen zen tipo berbera. Adiskideek bazuten Iratiren eta bere aitaren arteko egoera bereziaren berri, eta lagunari mesedea egingo ziotelakoan agian, ospa egin zuten gizona hurreratzen hasi bezain pronto.

-Ez zaitut ezagutu ia. Musu bat emango didazu, aspaldiko?

Iratik barre azala egin zion, horixe zegokiolako, argazkietan jartzen den barre azala nolanahi ere, eta bi musu eman zizkioten elkarri.

-Zer? Ezustekoa eman dizut? -baieztatu nahi izan zuen Iratiren aita, hark bai,

belarritik belarrirainoko irribarrea erakutsiz.

Iratik ez zion gezurrik esan.

-Ba bai.

-Laneko bilera nuen hemendik gertu eta bisita egiteko aprobetxatu dut.

-Bai, amak esan dit.

Aitak aurrez aurre begiratu zuen Irati, eta ukitu samur bat egin zion kokotzean, hatz lodiarekin. Irati saiatu zen begirada mantentzen, baina ez zuen luzaroan lortu.

-Aizu, institutua ez al dute handitu? Lehen txikiagoa zen, ez?

-Bai, orain dela bi urte berri zuten. Orain dela bi urte? Bai, uste dut baietz -galdetu eta ihardetsi zion bere buruari, bi urte zirela ederki asko zekien arren.

-Desberdina ikusten nuen. Ni ere institutu honetan egon nintzen ikasten. Bazenekien?

-Bai.

-Zer, joango al gara amarekin bazkaltzera?

-Nigatik bai.

Zortzi bat minutuko bideari ekin zioten. Zortzi minutu horietarik lehenengoa aitak kaleak eta eraikinak eta txokoak birpasatzen eman zituen. Iratik, normala denez, batzuk zein besteak ondo baino hobeto ezagutzen baitzituen, ez zuen horietan arreta jarri. Aitari ere apenas egin zion so. Ustekabean ikusi zituen bere aurpegiko zimurrak, argazkian ez zeudenak, eta bere bizar urdintzen hasia, argazkian ageri ez zena ezta ere.

Bigarren minutuan aitari bururatu zitzaion eskolan zer moduz zebilen galdetzea Iratiri, baina bururatu orduko gomutan hartu zuen berak ume denboran ez zuela galdera hori batere gogoko. Nagusiki oporretan. Hortaz, galdera baztertu eta beste baten bila hasi zen. Ez zuten bide osoa isilik egingo, ezta?

-Eta zer moduz eskolan? -galdetu zuen hirugarren minutuan.

-Ondo -izan zen Iratiren erantzuna, arestiko irribarrea bezain zintzoa, seguru asko.

-Eta bestela?

-Ondo -sintetizatu zuen-. Dena ondo -erantsi zuen lipar batez hausnartu ondoren, era horretan jarraian etor zitezkeen galdera gehienak erantzunda utziz.

-Ze hotza egin duen azkenaldian. Eta gaur ere... Ibaiak ere izoztuko zaizkigu martxa honetan.

Iratik eskuineko eskularrua erantziz, patrikatik kleenex bat askatu eta zintz egin zuen.

Azkenburuko jogurta hartzeko ohi bezala egongelara joan zen Irati, telebista

aurrera. Hortaz, egunerokoa errepikatu besterik ez zuen egiten. Ohitura-neska izanik horixe zen normalena, ez da hala?

Baiki. Bazekiela. Azkeneko aldiz auskalo noiz ikusiko zuen. Eta ez zen edonor, ez zen auzokoa, azukre eske etorria. Bere aita zen. Baina tira, ez zuen bakarrik utzi, amarekin gustura asko zegoen sukaldean: noizean behineko algarak horren erakusgarri. Borondate onez aritua zen bazkarian gainera, atsegina eta adeitsua izaten saiatuz, baina aizua, ezin zuen gizon horrekin berezkotasunez jokatu, estutasunez baizik. Egongelara joatea beste erremediorik ez zuen, bere behatik ihes egiteko. Ez zeukan zertan tentel eta errudun sentitu, uste zuen Iratik.

Iratiz gain egongelan txakurra zegoen, isatsa erratza balitz bezala higituz. Iratik burua eta bizkarra beso-mugimendu bakarrean laztandu zizkion, eta atzera berriz. Txakurrak isatsa higitzen jarraituz erantzun zion, eta intzirika, eta Irati adi-adi begiratz.

-Oraintxe goaz -agindu zion. Txakurrak aiene egin zuen-. Bai, motel, segituan.

Txakurrak, halako batean, aurreko zangoak Iratiren belaunetan ezarri eta neskaren alu-aldea usnatu zuen.

-Tematia zara gero -esan zion, asaldura arrastorik gabe-. Kendu, temoso.

Txakurrak ez zion jaramonik egin. Ostera, Irati konturatu zen aita begira zutela. Besoarekin indarrez alboratu zuen txakurra eta segidan hankarekin bortizkiago. Aitak, ezer ikusi ez duenaren itxurak eginez sofan Iratiren alboan eseri zen arren, irriño bat ezin izan zuen saihestu. Pantailan, Iratik normalean begiratzen zuen emankizun ospe txarrekoaren orde, hara non, lehiaketa kulturala ageri zen.

-Programa hau ona al da? -galdetu zuen aitak.

-Tira.

Iratik bere aztoramena estaltzen ahalegintzeko jogurta jan zuen, begirada telebistan iltzatua. Bata bestearen ondoan eserita osotara bi minutu egon ondoren, Iratik jogurtaren ontzi hutsa eta koilaratxoa jaso eta jaiki egin zen.

-Ba al zoaz?

-Bai, jarri nahi duzuna. Telebista ez dut gehiago ikusi behar.

-Ziur? Niri berdin-berdin zait hau ala bestea ikustea, e?

-Bai, lasai, txakurra paseatzera eraman behar dut.

-Zurekin joatea nahi?

Iratik igogailuan burutu zuen lehenbiziko ekintza, eskularruak eta txanoa jantzi aurretik, izan zen kokoriko jarri eta txakurrari buruan maite-maite egitea, kementsu, arestiko ostikoarengatik barkamena eskatzearren-edo. Txakurrak mingaina atera eta hatsa

bota zion aurpegira. Dena ahantzia.

Ezkaratz parean txakurra ez zen kalean egotearekin etsi, eta ohiko ibilbideari hasiera eman nahi izan zion, tiratzearen poderioz uhalaren elastikoa behin eta berriz bere mugaraino eramanez. Iratik literalki sustraitua zirudien ordea, eta ez zen gura zuelako. Itxoitea kontu gogaikarria iruditzen zitzaion, are eta gogaikarriagoa zebilen haizearekin. Zinez beharrezkoa al zen aita etortzea? Ordu laurden ziztrin bat irauten zuen zeregina bete baino lehen beste ordu laurden bat egon behar al zuen esperoan? Laster madarikatu zuen bere familia osoa, partaideetako bat eskuak igurtziz agertu zen arte.

-Barkatu, baina zure ama badoa lanera, eta agurtu behar nuen -zerurantz begiratu zuen-. Hau da hau hotza. Hobe dugu azkar mugitzea.

Aholku horri zegokion ihardespena otu zitzaion arren Iratik isiltasuna mantentzea aukeratu zuen, eta dotorezia bide batez. Txakurrak markatutako norabidea errespetatu zuten bai Iratik zein Iratiren aita, txakurrek beren sabel-husteak uzteko gune aproposantantz zeramana, bi eskuak sakeletan (Iratik bat), eta lepo-sorbaldak uzkurtuta.

Iratiri otu zitzaion berriro saiatzea, eta atsegina izatea aitarekin. Ordura arte harekin mintzatu zen hari erantzuteko soilik, behin ere ez bere kabuz edota berak abiatutako solasaldietan. Gainera, berak hitz egin ezean aita aurki izango zuen itaunka, eta itaun deserosoak egon zitezkeen tartean. Beraz, buruan galdera bat osatu bezain azkar ozenki galdetu zion, neurritz gaineko jakingurarik gabe egia esan.

-Di-na-mi-za-tzaile -silabak banan-bana ahoskatu behar izan zituen- zabiltzala esan duzu lehen, ez?

-Bai -harrapatu zuen jokoz kanpo aita.

-Baina zer egiten da lan horretan, zehazki?

-Bazkarian lehen ez al dizuet esplikatu ba?

-Bai -erantzun zion aitari. *A bai?* erantzun zion bere buruari-. Baina nik ez dut ondo ulertu.

Aitari ez zitzaion axola azalpena errepikatzea, oraingo aldian espezifikotasunen erabilpena urritzen ahaleginduz:

-Ba hara, ez dakit zer badakit zer, eta hau eta bestea baita ere, eta halaxe eta holaxe -entzun zuen Iratik gutxi gorabehera, txakurrak aisialdi-gunean beharrak nola asetzen zituen ikuskatu bitartean. Gogo bizia sumatu zuen lehenbailehen etxera bueltatzekoa. Hotza zela-eta, seguruenik.

Txakurrak amaitu zuela iruditu zitzaionean, Iratik uhalari ahalik eta indartsuen tiratu zion, animalia airean eramateraino kasik.

-Tira, eta badakizu non bizi naizen, nahi duzunean etor zaitezke, lagun batekin

nahi baduzu, autobusa hartu eta ordu betean zaudete han, edo bestela ni etorriko nintzaitezue bila -jarraitu zuen berriketan aitak.

Eten bat gertatu zenean, aitak arnasa hartzeko, Iratik badaezpadako *ados* eta *baleak* aipatzeko erabili zuen hutsunea.

-Ze hotza, demonio -kexatu zen Iratiren aita, lasterrera. Iratik ez zuen deus ere gaineratu, baina bere aurpegiaren kolorea ikusirik, batez ere sudurrarena, bat zetorren pentsamendu horrekin.

-Hotz honekin, hainbeste egun segidan... -egin zuen gogoeta aitak-. Egingo nuke hemen ondoko igerilekua ere izoztuko zela, Hiriondoko igerilekua. Badakizu zein diodan, ezta?

-Urbanizazioarena?

-Bai, hori da, igerilekua aire zabalean dute, ondo gogoratzen badut. Joango al gara begiratzeraz? -bururatu zitzaion bat-batean-. Ziur izoztu dela.

-Orain? -izutu zen Irati-. Ez al da hustuta egongo? Leku pribatua da gainera.

-Bai, baina ez da ezer kostatzen, hemen ondoan dago eta ez da zaila sartzea, neska. Igerileku inguruan orain ez da inor ibiliko gainera, ziur. Joango al gara memento batean? Ez al daukazu jakin-minik?

Iratiri burutapena ez zitzaion bereziki erakargarria gertatu, ezta hurrik eman ere, baina oraindik aitari ezezkoak ematera ausartzen ez zenez, dozena erdi bat minutuko ibilaldiaren ostean hirukotea egoitza-multzoaren lurraldea zedarritzen zuen ataka aurrean zegoen, txirrinen panelaren alboan. Aitak pittin bat urruntzeko eskatu zion Iratiri, portal automatikoaren kamerak bera bakarrik foka zezan. Besterik gabe, hatz dagoeneko hozminduak patrikaren babesa utzi eta 2F-aren txirrina bitan jo zuen. Ez zen erantzunik egon. Hortaz, 2G-aren botoia sakatu zuen.

-Nor da?

-Mezularia.

Aitak erantzutearekin bat, txakurrak inon ikusten ez zen ahotsaren jabeari zaunka egin zion. Animaliaaren tamainari erreparatuz, zaunken bolumena ez zen baztergarria batere.

-Nola? Nor da?

-Mezularia! -errepikatu zuen aitak ozenago.

2G-koak, zalantza egin ondoren, atea zabaldu zion Iratiren aitari eta ondorioz atzetik sartu zitzaizkion Irati eta txakurrari.

Atakaren bestaldean jada, giblean guztiak antzekoak ziren banakako etxebizitzak utzi zituzten, haietan begirik ipini gabe ia. Igerilekura eskuinaldeko edo ezker aldeko

bidetik joaten zen seguru ez zekiela jakinarazi zion aita Iratiri, baina ez zebilen oker, eskuinaldekoa zen. Hortxe gizon batekin topo egin zutelarik, hark arrotzak balira bezala begiratu zion, ziurrenik hala zirelako.

-Arratsalde on -agurtu zituen jendetasunez. Etorritako bidetik desagertu zen ondoren.

Trabarik ez zegoen gehiago. Eskailera-mailak jaitsi eta hantxe zuten luzean hogeita bost bat metroko igerilekua, dutxa eta jauzi-ohol apal batez hornitua. Irati igerileku horren ondoan eta egoitza-multzo horren lurraldeetan bizitzan lehenengo aldiz zegoen, eta zirrargarria zen nolabait, baimenik gabe zeudelako han, batik bat. Igerilekua hustu gabe eta izozturik zegoen.

-Aizu Irati, ekarri txakurra pixka batean.

Iratik uhalaren heldulekua eskuan jarri zion, arreta egoerak galarazita. Baina aita uhala berehala utzi zuen txakurra besoetan hartzeko, igerileku ertzerantz urratsak emanez. Iratik protesta egin zuenerako berandu zen: txakurra barruan zegoen, izotz gainean irristaka. Aita barre egin zuen animalia hala ikusita; Iratik aitari kargu hartu zion, eta txakur gaixoa handik ateratzeko galdatu, faborez.

-Lasai, neska, ez zaio deus ere gertatuko. Izotza lodi-lodia da, ikusi -atea joko balu bezala jo zuen izotza-. Hau ez da erraz hausten. Ni ere sartuko naiz, begira.

Aurrena hanka bat finkatu zuen, eta arriskurik nabaritu ez zuenez, jarraian bestea. Erdi-makurtuta eta besoak zabaldu txakurrarengana hurbildu zen, igerilekuaren erdialdean zegoena. Irribarrez begiratu zion Iratiri, eta buruarekin sartzera gonbidatu zuen. Iratik ez zion irribarrea bueltatu, eta ez zuen inondik ere sartzeko asmorik erakutsi.

Izotza ez zen apurka kraskatu aitaren azpian, apurka pitzatu aurretiko abisua legez. Izotza bat-batean puskatu zen eta Iratiren aita eta txakurra biak batera hondoratu ziren.

Iratik ikaratuta zirudien. Aita begiratu zuen, irten ezinda, berak zabalduko zuloaren inguruko izotzean sostengua hartu nahirik, baina izotz-pusketa gehiago eta txikiagoak sortu besterik ez zuen egiten. Eta txakurra ikusi zuen, mela-mela, txakurren eran igeri egiten.

-Lagundu Irati, oso hotza dago, eta igerian ez dakit ondo -eskatu zion aita.

Iratik igerileku ertzean eskua luzatu eta txakurraren lepokoa oratzea erdietsi zuen. Herrestan atera zuen handik. Txakurra bere gorputza astintzen zegoen bitartean, aita burnizko eskailerara iritsi, ez zailtasunik gabe, eta bere kasa irten zen, arnasestuka eta hotzak akabatzen.

Ur beroarekin duxatu eta Iratik eraman zion arropa zaharra jantzi zuenean (jertsea

arrosa kolorekoa zen), eta berak eta bere janzkiek nonahi utzitako putzuak lehortu zituenean (hobeto lehortzerik bazegoen), aitek ez zuen zirkinik egin, oraindik ere. Janzki blaituak poltsa batean sartu eta bazihoan. Irati hondartzarako erabiltzen duen eskuoihalaz txakurra igurzten zegoen lanpetuta, egongelan. Aita inguratu zitzaien.

-Banoa, Irati. Esan dizut lehen, nahi duzunean etorri bisita egitera -izan zen bere konpromisozko gonbitea.

-Ados -izan zen Iratiren konpromisozko onartzea.

Hurrengo egunean, Irati esnatu zela hautemandakoan, txakurra eskean hurbildu zitzaion. Iratik lepoan eta belarri atzealdean masaje laburra eman zion.

-Bai, bagoaz, zaude pixka batean.

Komunean denbora dezente eman zuen Iratik, txakurraren egonezinerako. Azkenik irten zenean berogarriak jantzi eta prest zegoen Irati, goizero bezala, hutsik egin gabe, txakurra paseatzera eramateko.